



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 5koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka-eskaeren ebazpena ematen du A Modalitatean (ikasturtean zehar).

Hezkuntza sailburuak, 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bitartez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetza beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat. 3.1 artikulua jasotzen du bekaren A Modalitatea: lankidetza egiteko ikasturtean zehar.

Hautaketa-batzordeak, 2017ko abenduaren 4an aurkeztutako eskaeren ebazpenerako proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari, unibertsitateko Ikasiker lankidetza bekarako 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitartekoa A Modalitatean (ikasturtean zehar).

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 287.500 €, A Modalitatean (Eranskin I).

Bigarrena: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta, baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (Eranskin II).

Hirugarrena: Aurkeztutako eskaerari atzera egitea onartzea, A Modalitatean (Eranskin III).

Laugarrena: Interesatuak, gorako errekurtoa jarri ahal izango dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 5a.

LA DIRECTORA DE POLÍTICA
Y COORDINACIÓN UNIVERSITARIA

Miren Artaraz Miñón